

MOGEL-TARREN

IZKRIBALARI BIKANEI OROIPENA.

«Markiña aldeko pozgarri dira
Iru Mogel-en izenak.»

(A. ARANA-K, Eusk.-Izkribalarien gañean. II)

Mogel-tarren arraza
Guziz da piña;
Jatorri piñ onek du
Pozten Markiña;
Arraz orretan
On Juan chit da bikaiña
Euskal letretan.

Ori bezelakorik
Ez da Bizkaiyan,
Bada bere izketa
Chit dago goiyan;
Berdinik ez du
Bizkaitarraren lurak
Beñere sortu.

Izkribalari zuzen,
Prestu ta ernaya
Euskera-zale zintzo,
Leyal, argiya,
Bertutetsua;
Sermoi egiten ere
Zera maisua.

On Juan-en illoba da
On Antoniyo,
¡Al Zer izkunde ederra
Zayon jario!
Gaur guk saritzat
Eskeñi dezayogun
Lora sorta bat.

Emakume argal bat
Izanagatik,
Bizenta ' mintzatzenda
Euskeragatik;
¡Nekazariyak!
Irakur ditzatzute
Onen ipuiyak.

Zuentzat jarri ditu
Oso polliki,
Itz larri ta neurtuaz
Gauzak ederki
¡Esker zazute!
Ipui eder oriyek
Merezi dute.

Danak dira prestuak,
Azkarrak danak,
Bizkaiya goitu dute
Oriyen lanak.
¡Alcha ditzagun!
Euskal maitale danok
Gau eta egun.

Biyotzean gordea
Pozez iduki
Mogel-tarren oroitza
Oraiñ ta beti.
¡Zuk, aomena,
Zabal zazu munduan
Beren izena!

ECHEGARAY-KO KARMELO-K.

Santander-en Urriyarren 11^{en} 1882^{an}.

(1) Bizenta Mogel ta Elgezabal.